

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz



TESTUA ETA ARGAZKIAK:
AMAIA UGALDE

Oiz mendia

Bizkaia lau haizetara

Errotak eta antenak ikusten zaizkio Oizeri Bizkaiko hamaika txokotatik.
Gailurrean, hamaika txoko horien xarmaz goza daiteke.
Bizkaiko bihotzean gaude.

Bizkaiko balkoia deritzon begiralekutik gertu hartu dugu Oizerako bidea, Zugastietan eta Munitibar artean. Munitibarko noranzkoan kilometro batera dago Oizerako bidegurutzea, Ganbe auzotik 200 metrora. Seinalea dauka bideak; argi ibiliz gero, galbiderik ez! Erraz egiteko bidea da; aldapa gogorren bat edo beste duen pistari jarraitzea besterik ez dago. Baina ez da bakarra; Oizera igotzeko hamaika bide daude. Bizkaiko hainbat herri batzen dira Oizen magal zabaletan, eta guztietatik dago 1.024 metroko altueran dagoen tontorrera igotzeko aukera: Berriztik, Trabakuatik, Garaitik, Iurretatik, Maumatik...

Munitibarretik igota ordubete pasatxoan izango gara goian. Autoa nahiko goraino igotzeko moduko bidea aurkituko dugu. Gorantz apurka-apurka, hiru pauso aurrera eman eta atzera begiratzeko moduko paisaia izango dugu. Busturialdea dugu behean, eta Urdaibaiko itsadarra ere ikus daiteke, eguraldiak lagunduta, nahiko garbi. Oizerako bidean ez dugu gerizperik izango; ez dago zuhaitz askorik, eta horrek duen abantaila denbora guztian behera begira Bizkaiko bazterrak ikus daitezkeela da.

Gero eta handiago ikusten dira Oiz gaineko errotak, baina haien ondora heltzean, orduantxe harri-

tzen gara euren handitasunaz. Jarraitu dugun bidetik errotarik berrienen ondora helduko gara, San Kristobal ermitaren ondora. Baliteke autoren bat edo beste ikustea. Ingurune horretan lasai egon eta zertxobait jateko moduko mahaiak aurkituko ditugu. Iturri bat ere badago, San Kristobaletik hartu eta ezkererantz doan bidean. Ur fresko-freskoa dago bertan. Ingurunea aspalditik izan da albo-ko herri txikien topagune, eta oraindik ere, uztailearen 10ean, San Kristobal egunean, jaia izaten da Oizen, erromeria eta guzti.

Tontorrera heltzeko tartetxo bat geratzen da ermita ondotik, baina



Zaldiak belar janean, Joxemiel Barandiaranek aurkitutako dolmenaren inguruan. Argazkiaren ezkerreko aldean, urrunean, Urdaibai ikus daiteke.

dagoeneko ia bertan gaude. Mungialdeko herritxoak, Zornotza, Lemoa eta Durangaldeko mendilerro ikusgarria ikus daitezke. Anboto parez pare, Durango eta Abadiño ikusiko ditugu. Aurreraxeago dolmen bat dago, Joxemiel Barandiaranek aurkitutakoa. Errotekin egiten duen kontrastea ikusgarria da.

Errota erraldioen besteko inpresioa eragiten dute Oiz tontorreko antenek. Postontzien alboan, Lea-Artibaiko lurra ikusten dira alde batetik, eta bestetik, Gipuzkoa eta Arabako mendi garaienak, Udalaitez gain. Erroten bidea ez da hemen amaitzen. Bertatik jaitsi eta Trabakua gainerantz doan bidea ikusiko dugu.

Errotak baino askoz gehiago

Parke eolikoa ezarri zenetik mendi berezia da Oiz, eta errotak jarri aurretik ere berezia zen antenengatik. 1985ean antena horien kontra jota hegazkin batek istripua izan zuen, eta ordutik mendiaren memorian leku beltza hartu du istripu horrek. Gauza horiek guztiek esanguratsu eta ospetsu bihurtu dute mendia, onerako zein txarrerako, baina Oiz askoz lehenagotik da berezia inguruko biztanleentzat.

Anbotoko Marik bizilekuz aldatu eta Oizeko bidea hartzen zuela zioten antzinako euskaldunek. Gure arbasoentzat leku esanguratsua zen zalantza barik. Arinago San Kristobal ondoko dolmena aipatu dugu.

Horrez gain, beste lau dolmen ere aurkitu dituzte Oiz inguruetan.

Bere altzoan hainbeste herri izanik, mendia erdigune eta bilgune izan da euskaldunentzat. Bertatik Gernikako Batzarretarako deiak egiten ziren: su handi bat pizten zen inguruko herrietatik ikusteko, eta adarrez egiten zen deia. Gaur eguneko trafiko eta zaratarik ez zen garai horietan, urrunetik entzuten zen Oizen deia darra, Bizkaiko beste lau deiadar-mendienarekin batera.

Mendiaren bizkarrezurra diruditen errotak, antenak... Oiz ezagutu aurretik, itsusia dela pentsa dezake batek baino gehiagok. Baina behin gailurrera igota, Bizkaiko edertasunaz txunditzen da norbera. ■

ATALAIA JATETXEA

Aritz Ondo, 69 • 20305 Iruñ
Tel: 943 635518 • Faxa: 943 638718
e-posta: info@hotelatalaia.com
web orria: www.hotelatalaia.com

Ondarre baserria

20214 Segura (Gipuzkoa) Tel.: 943 801684
e-posta: ondarre@hispavista.com www.acvmultimedia.com/ondarre